


2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektuaren oinarrian ez dago salerosketa hutsa, baizik eta elkartasunaren bidez istorio bat kontatzeko nahia. Panpin Askeak ez da jostailu arrunt bat, baizik eta bakearen, justizia sozialaren eta elkartasunaren sinboloa. Gure bezero potentzialak anitzak dira: norbanakoak zein erakundeak, eta denek helburu bera dute, mundu bidezkoago eta baketsuago bat sustatzea.

Erakundeei dagokionez, gure bezero nagusia Eusko Jaurlaritza da. Gure jarduera nagusia ikastetxe publikoetan egiten dugulako, eta ikastetxe horiek sektore publikokoak direlako; gure kasuan, Eusko Jaurlaritzaren menpekoak. Horrela, gure lana hezkuntza publikoaren barruan kokatzen da, eta gazteei zuzenean heltzeko aukera dugu, haien ingurunean eragin handiagoa izanik. Hala ere, nahiz eta gure merkaturia batez ere eskola publikoetan oinarritu, ikastetxe pribatuak eta itunpekoak ere ez dira kanpoan geratzen. Kasu horietan, salmenta zuzenean egingo zaio ikastetxearen arduradunari.

Bestalde, gure ustez, haur guztiek ez dute interesa edo parte-hartze bera ikastetxeetan eskaintzen ditugun jardueretan. Horregatik, oso garrantzitsua da familiak ere gure helburuan sartzea. Gurasoek zeregin garrantzitsua dute balioak transmititzeko orduan, eta haien bidez gure mezuak eragin handiagoa eta luzeagoa izan dezake.

Bezeroen segmentuen banaketa:



Gure bezero-segmentuak hauek dira: lehenik eta behin, ikastetxe publikoak dira gure bezero nagusiak. Panpina hau hezkuntza-tresna gisa erabiltzen da, haurrei bakea, elkartasuna eta giza eskubideak irakasteko. Gure taldeak hitzaldiak eta tailerrak egingo ditu eskola hauetan,

eta panpina ikasleen artean erabiltzen da hausnarketarako tresna moduan. Ikastetxe publikoek balio unibertsalak eta inklusiboak sustatzen dituztenez, oso egokiak dira gure mezua zabaltzeko. Haien rola proiektuaren oinarria izatea da, eta haien garrantzia gure lan pedagogikoaren eta sozialaren oinarrian dago.


Bigarren segmentua familiak eta norbanako kontzientziatuak dira, balio hezitzaile eta solidarioak bilatzen dituztenak. Guraso askok nahi dute seme-alabek jostailuen bidez beste herrialdeetako egoerak eta bakearen garrantzia ezagutzea. Panpin Askeak etxean erabil daiteke opari edo dekorazio-elementu sinboliko gisa, bakearen eta askatasunaren ikur moduan. Familiek gure mezua etxeetara eramaten dute, eta belaunaldi berrietan balio solidarioak zabaltzen laguntzen dute.

Hirugarren segmentua jostailu-dendak eta merkataritza solidarioa dira. Denda hauek arduratsuak dira eta baloratzen dituzte produktuen jasangarritasuna, bidezko salmenta eta edukia. Panpin Askeak erakargarria da bere mezu positiboagatik, eta denda solidarioetan ondo kokatzen da. Dendek gure produktua jendarteratzen dute eta jende gehiagorengana iristeko aukera ematen dute. Haien garrantzia da proiektuaren ikusgarritasuna eta eragina handitzea.

Laugarren segmentua GKEak eta erakunde sozialak dira. Hauek bakearen eta giza eskubideen alde lan egiten dute, eta panpina erabil dezakete sentsibilizazio-kanpainetan, hezkuntza-proiektuetan edo ekitaldi solidarioetan. Haien rola da gure panpina zabaltzea ekintza sozialetan, eta horrela gure proiektuaren balio solidarioa eta nazioartekoa sendotzea.

Funtsean, ikastetxe pribatuak eta itunpekoak ere gure bezero potentzialen artean kokatzen dira, hezkuntza-balioekin eta gizarte-kontzientziarekin konprometitutako zentroak direlako. Testuinguru honetan, Panpin Askeak hezkuntza-tresna gisa erabil daiteke, bakea, enpatia eta giza eskubideak lantzeko programen barruan, baita jarduera osagarri edo sentsibilizazio-ekimenetan ere bai. Kasu hauetan, salmenta zuzenean egingo litzateke ikastetxean lantzen eta ikasten dutenekin; panpina ikasleen balioetan oinarritutako hausnarketa eta hezkuntza indartzeko baliabide praktiko eta sinboliko gisa erabiliko litzateke.

Era berean, gure proiektuan erakunde publikoek ere funtsezko rola izan dezakete. Panpin Askeak ekitaldi instituzionaletan, hezkuntza- eta gizarte-programetan edo sentsibilizazio-kanpainetan parte hartu daiteke, balio unibertsalak eta elkartasun-mezuak zabaltzeko tresna gisa. Gainera, erakunde hauek proiektua babesteko aukera dute, laguntza ekonomikoa, baliabide materialak edo ikusgarritasun instituzionala eskainiz. Horrela, lankidetzaren bidez, Panpin Askeak ekimen hezitzaile eta sozial gisa sendotzen da, gizartean eragin handiagoa lortuz.



Laburbilduz, gure bezero nagusia ikastetxe publikoak dira, baina proiektuaren arrakasta bezero guztien arteko lankidetzan dago. Ikastetxeek hezkuntza lana egiten dute, familiek mezua etxeetara eramaten dute, dendeak produktua saltzen dute, eta GKEek balio soziala indartzen dute. Horrela, Panpin Askeak ez da jostailu soil bat, baizik eta gizartea elkartasunean eta bakean hezteko tresna bihurtzen da.

Nor da?	Zer ikusten du panpinean?	Zergatik erosten du?
Irakaslea	Ikasleekin partekatzeko hezkuntza tresna bat	Bakea eta enpatia lantzeko eskoletan
Gurasoa	Haur baten istorio erreala eta emozioa	Balio solidarioak transmititzeko etxean
Gazte aktibista	Protesta sinboliko eta bakezalea	Sare sozialetan mezua zabaltzeko eta ahots isilduak entzuteko
Artista edo sortzailea	Pieza estetiko eta sozial bat	Sormenaren bidez kontzientzia pizteko
Artista edo sortzailea	Oroigarri etiko eta kultural bat	Erosketa txiki batekin ekintza handia egiteko aukera

Taula honen bidez gure bezeroak eta haien motibazioak hobeto ulertzeko asmoa dugu. Panpinak ez dira produktu arruntak; istoriotan oinarritutako sinbolo sozialak dira. Horregatik, jendeak ez du panpina bat erosten materialagatik, baizik eta esanahiagatik eta emozioagatik. Gure proiektua profil desberdinetara heltzen da, taulan argi ikus daitekena. Irakasleek panpinak erabiliko dituzte bakea eta enpatia lantzeko ikasleekin; familiek edo gurasoek, aldiz, panpinak balio solidarioak etxean irakasteko erabiliko dituzte. Gazte aktibistek panpinak elkartasun edo protesta sinbolo bezala ikusten dituzte, sare sozialetan

Panpin Askeak

mezua zabaltzeko asmoarekin. Artistek eta sortzaileek panpinen edertasuna eta esanahi soziala baloratzen dute, eta bidaiariek panpinak erosten dituzte oroigarri etiko bezala, ekintza txiki batek gauza handiak lor ditzaketelako. Azken finean, taula honek erakusten du gure bezeroak desberdinak baina elkartuak direla; denek partekatzen baitute bakearen mezu bera.